

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 20201eko urtarrilaren 26an egindako ohiko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela. 1., eta 2. puntuak, gehiengoz, eta 3. puntua, aho batez.

“Urtarrilaren 20ko iluntze aldean, istilua eta sesioa izan zen berriro ere Donostiako Parte Zaharrean, gure hiriaren egun handian ostalaritzako establezimenduak ixteko garaian. Egunotan, gizalegerik eta axolarik gabe portatzen ari dira berriz ere pertsona batzuk, ez dituzte Covid-19aren ondorioz bizi dugun ohiz kanpoko egoera dela eta ezarritako arauak bete nahi eta.

Hala, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak Parte Zaharrean jardun beharra izan dute, pertsona batzuk –pertsona taldeak, kalean edaten– behin eta berriz hausten dituztelako agintariak ezarritako osasun arauak.

Donostia, beste hiri eta udalerrri asko bezala, egoera gaiztoan dago, COVID-19az kutsatzeko arriskuagatik. Donostiako familia askok galdu du maite zuen pertsonaren bat, eta beste asko gogotik ari da nozitzen larrialdiaren erasana. Hor ditugu, esate bateako, ostalaritza eta komertzioak, borrokan gogor, iraun ahal izateko, ziurgabetasun handi batean murgilduta.

Bart gauean Donostiako Parte Zaharrean izan diren bezalako istiluek arriskuan jartzen dute gure arteko elkarbizitza eta gure hiriaren etorkizuna, donostiarren osasuna eta negozio

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 26 de enero de 2021, aprobó, la siguiente Declaración Institucional. Los puntos nº1 y nº2, por mayoría y el punto nº3, unanimidad.

“En la tarde noche del 20 de enero se volvieron a producir altercados y disturbios en la Parte Vieja de San Sebastián, coincidiendo con el cierre de los establecimientos hosteleros en el día grande de nuestra ciudad. En los últimos días se están repitiendo estos comportamientos incívicos e irresponsables por parte de algunas personas que se resisten a acatar las normas establecidas por la situación excepcional que vivimos como consecuencia de la pandemia de la Covid-19.

La Policía Municipal y la Ertzaintza han tenido que actuar en la Parte Vieja ante la negativa de varias personas, grupos de personas haciendo botellón, que contravienen un día tras otro las normas sanitarias establecidas por las autoridades.

San Sebastián, como otras muchas ciudades y municipios, está en una situación límite de contagios por la Covid-19. Muchas familias donostiarras han perdido a seres queridos y están sufriendo el impacto de esta crisis, como la hostelería y los comercios que están luchando para poder sobrevivir en una enorme incertidumbre.

Altercados como los vividos anoche en la Parte Vieja de San Sebastián ponen en riesgo la convivencia y el futuro de nuestra ciudad, la salud de los donostiarras y la viabilidad económica



asko eta askoren bideragarritasun ekonomikoa.

de tantos negocios.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatu dugun udal taldeek aurkeztutako

Por estas razones, los Grupos Municipales firmantes presentamos la siguiente

ERAKUNDE ADIERAZPENA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. Gure gaitzespen sendoena adierazten dugu pertsona batzuen jarrera insolidario, gizalege gabeko eta ezin justifikatuzkoaren aurrean, beren apeta denen hobe beharraren eta besteenganako errespeturik txikienaren aurretik jartzen dutelako pertsona horiek, eta herritarren arteko bizikidetza nahasi eta pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-arauak urratzen dituztelako.

1. Mostramos nuestra más rotunda condena ante las actitudes insolidarias, incívicas y de ninguna manera justificables de algunas personas que anteponen sus apetencias personales al bien común y al más mínimo respeto hacia las demás personas, perturbando la convivencia ciudadana e incumpliendo las normas sanitarias establecidas como consecuencia de la pandemia.

2. Udalbatza Osoak bere laguntza eta babes osoa erakusten die Udaltzaingoari eta Ertzaintzari, egiten duten lan zaila egiteko, eta berriz adierazten dugu gure konpromiso sendoena ahal dugun guztia egiteko lehen esandako jokabiderik ez gertatzeko berriz gure hirian.

2. El Ayuntamiento en Pleno muestra todo su apoyo y respaldo a la Policía Municipal y a la Ertzaintza en su difícil labor y reiteramos nuestro más firme compromiso de hacer todo lo posible para que este tipo de actitudes no se repitan en nuestra ciudad.

3. Donostiar komunitatearen onerako lan eginenez jarraituko dugu guk, bizikidetza osasuntsu eta baketsuaren alde, errespetua eta elkartzasuna oinarri hartuta”
=====

3. Seguiremos trabajando por el bien de la comunidad donostiarra desde el respeto y la solidaridad por una convivencia sana y en paz”.
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko urtarrilaren 28an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 28 de enero de 2021.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:**